

IBILBIDEA:

ESKULTURAK ETA PINTURAK

ARTZINIEGAKO HIRIGUNE HISTORIKOAN

Aterki-ontzia

Hirigune historikora Hiriko Atetik sartuta, Artziniegako bizilagunek egindako lehen eskultura aurkituko dugu, ibilbide kultural honetako lehena. Hiribildua bisitatzen duten pertsonak jasotzen dituen jauregi barrokoaren fatxadan, Hiriko Atean, aterki-ontzi bat jarri zen, aterkia uzteko etxeen sarreran zegoen altzaria. Eskultura horren bidez hirigune historiko honetara iristen denari ongietorria eman nahi zaio, aterkia, kapela eta bufanda batez "etxean zaude, ongi etorria zara" esanez. Goialdean, gortina erdi irekita duen leiho forjatu batek burutzen du pieza hau.

Lan-bankua

Eraikinaren ertzetik joanda, Beratza Aldaparen goialdean Molinillo y Velascotarren XVI. mendeko dorrearen fatxada altxatzen da. Honen aurrean, errementarien lan-bankua aurkitzen dugu. "Artisauen oroimenean" izena eman zitzaion. Udalerrian, garai batean, lau sutegi ere izan ziren, horietako bat, dorre horren ondoan. Izan ere, gure herrian artisautza oso jarduera garrantzitsua izan da, herria bera sostengatu duena.

Udaletxe Zaharreko Murala

Dorrea gure atzean utziz, aldapa bukatuz, Goiko Plaza gure aurrean irekitzen da. Gure ezkerrean, Udaletxe zaharra, eta bere hastialen artean, herriko margolariek Antzinako Azokaren edizio bakoitzean osatzen duten murala, non oinezkoen aurpegiak pintatzen dituzten. Oraindik izenbururik gabe dagoen Velazquezen "Bredako errendizioa" margoaren interpretazio aske bat da.

Plaza zeharkatuta eta iturria atzean utzita, Lehendakari Agirre pasealekura sartuko gara. Pasealekua igarota, Jasokundearen Parrokiara helduko gara, XVI. mendeko eraikin gotortua. Eraikinaren atzealdetik jarraituz, El Campillo begiratokia aurkituko dugu.

Artziniegako Armarrria

Bertan, beharbada lau ekintza artistikoetatik ausartena aurkituko dugu, bai multzo bat osatzen duelako bai ordezkaten duenagatik ere: hiru dorre, lantza bat eta zuhaitz forjatu bat. Artziniegako armarrria. Hiru dorretako bakoitzak Artziniegak dauzkan hiru museoetako bat irudikatzen du: sakroa, santutegiaren marrazkiarekin; etnografikoa, Artziniegako uria eta lau herriak (Santa Koloma, Mendieta, Soxoguti eta Erretes Tudela) hartzen zituen Ordunteko Batzarrari keinu gisa egindako marrazkiarekin; eta, azkenik, Santxotena tailer-museoa, Ortiz de Molinillo Velascotarren dorrearen siluetarekin eta oinetan artistak berak egindako pieza batekin. Hiruren osagarri gisa zuhaitz bat ageri da parean, arte bat. Eta jatorrizko armarrian lantza bat azaltzen den arren, santutegiko hesiaren burdin-sare bat jarri da haren ordeztu, lana eta bakea adierazteko.

Parrokiaren Gangetako Pinturak

Ibilbidea jarraituz eta parrokia inguratu ondoren, Goienkalera sartuko gara. Bertan, parrokiaren fatxada nagusia eta bere ganga koloretsuak topatuko ditugu. XX. mende amaierako pintura hauek, Antzinako Azoketan, herriko pintoreek teknika zaharrekin egindako lanak dira. Batean, hiribilduarekin lotutako santuak irudikatzen dituzte, eta, bestean, antzinateko eszenak. Margolan bakoitzak anakronismo bat du, hau da, gaur egungo elementu bat, adibidez, telefono mugikor bat edo garagardo-botilatxo bat, santuen gangan, eta kutxazain automatiko bat edo koltxoi bat eszenen gunean.

Elkarbizitzaren Mahaia

Pinturen enigmak aurkitu ondoren, parrokiaren aurreko kantoitik aurrera egin eta Artekale Plazara iritsiko gara. Ibilbide honetako azken geltokia da, baina, aldi berean, multzo honen lehenengo eskultura. "Elkarbizitzaren mahaia" izenburupean; mahai bat da, izenak dioen lez, bi aulki, ardo pitxer bat, ogi bat eta bi edalontzi dituena, eta iradokitzen duena elkarrekin partekatu, hitz egin, trukatu eta ospatzeko beharra.

Ibilbidea Artziniegan dauden beste eskultura publiko batzuekin osatzen da: Eugenio Garay Rivacobaren 1912ko estatua eseria, udaletxe ondoan dagoena; Santutegiko arte zaharraren gerizpe zabalean Ordunteko Batzarraren oroimenez 1998an jarritakoa; 2004an santutegi bereko lorategietan jarritako eskultura, "Bildu" deritzona. Eta azkenik Pablo Respaldizaren sutegiaren aurrealdean Luis Padurak egindako burdinazko barra karratu lodia.

ITINERARIO DE ESCULTURAS Y PINTURAS EN EL CASCO HISTÓRICO DE ARTZINIEGA

El Paragüero

Accediendo al Casco Histórico desde Hiriko Atea encontramos la primera de las esculturas elaboradas por vecinos de Artziniega que conforman este itinerario cultural. Frente al palacio barroco que recibe a quien visita el pueblo, en la misma Puerta de la Villa, un paragüero, mueble que existía a la entrada de las casas para dejar el paraguas, sombrero, bufanda... Una metáfora que pretende ser la recepción a quien llegue a este Casco Histórico, un “estás en tu casa, eres bienvenida”. En la parte superior, una ventana forjada, con la cortina medio abierta, corona esta pieza.

Banco de trabajo

Bordeando el edificio, subiendo por Beratza Aldapa, en la parte superior encontramos la fachada de la Torre de los Molinillo y Velasco, que data del siglo XVI. Frente a ella, encontramos el banco de trabajo de herrero, en “Memoria de las artesanas y artesanos”. Hasta cuatro fraguas hubo en el municipio, una de ellas, precisamente, junto a esta torre. Y es que nuestros pueblos se han construido y sostenido por múltiples artesanos.

Mural del Antiguo Ayuntamiento

Dejando la Torre a nuestras espaldas, culminando la cuesta, la Goiko Plaza se abre ante nuestra mirada. A nuestra izquierda, el antiguo Ayuntamiento y entre sus hastiales el mural que los y las pintoras de la villa van completando en cada edición del Mercado de Antaño, en el que van plasmando los rostros de los viandantes, en una interpretación libre de la “Rendición de Breda” de Velázquez aun sin título.

Atravesando la Plaza y dejando atrás la fuente, accedemos al paseo Lehendakari Agirre. Recorriéndolo hasta el final damos con la Parroquia de la Asunción, edificación fortificada del siglo XVI, y bordeando su trasera descubrimos el mirador de El Campillo.

Escudo de Artziniega

Ahí se ubica quizá la apuesta más ambiciosa de las cuatro obras, moldeadas por un grupo de voluntarios del pueblo, por su conjunto, pero también por lo que representa. Tres torres, una lanza y un árbol forjados. El escudo de Artziniega. Tres torres, y cada una representando a uno de los tres museos que atesora Artziniega: El Sacro, con el dibujo del Santuario; el Etnográfico, con el dibujo a modo de guiño a la Junta de Ordunte que acogía a cuatro pueblos de Artziniega como son Santa Koloma, Mendieta, Soxoguti y Erretes Tudela; y el Taller-Museo Santxotena, con la silueta de la torre de Molinillo y Velasco y a sus pies una pieza del propio artista que representa a nuestra sociedad matricarcal. Completando a todas ellas, un árbol, una encina. Y aunque en el escudo original aparece una lanza, esta ha sido sustituida por una reja del vallado del propio Santuario, en señal de trabajo y paz.

Pinturas de las Bóvedas de la Parroquia

Seguindo el itinerario y acabando de bordear la parroquia accedemos a Goienkale, donde se encuentra la fachada principal de la parroquia y sus coloridas bóvedas. Obra de los y las pintoras locales durante las ferias de antaño a finales del siglo XX, con técnicas antiguas, que representan santos y santas relacionadas con la villa, en una de ellas, y escenas de la antigüedad, en la otra. Cada una de las pinturas tiene un anacronismo, un elemento actual, como un teléfono móvil o un botellín de cerveza, en la zona de los santos, y un cajero automático o un colchón, en las escenas.

Mesa de la convivencia

Una vez descubiertos los enigmas de las pinturas, avanzamos por el cantón frente a la parroquia y accedemos a Artekale Plaza, la última parada de este recorrido, pero al mismo tiempo la primera de las esculturas de este conjunto. Titulada “Mesa de la convivencia”, una mesa con dos sillas, una jarra de vino, un pan y dos vasos, que sugiere la necesidad de compartir, conversar, intercambiar y celebrar en unión.

Un recorrido que se completa en Artziniega con otras esculturas públicas como la estatua sedente de Eugenio Garay Rivacoba, junto al ayuntamiento, y que data de 1912; la instalada en 1998 bajo la sombra frondosa de la centenaria encina, en el Santuario, en memoria de la Junta de Ordunte; la realizada en los jardines del mismo Santuario en 2004, y que lleva por nombre “Bildu”, para conmemorar la Coronación de la Virgen; y, la situada frente a la fragua de Pablo Respaldiza, una gruesa barra cuadrada de hierro, en Barrenkale, obra de Luis Padura.